

noa.ua

Jubenilen futbol taldea
ohorezko mailan ari da
Ostiral honetan
"Puro vida" dokumentala
eskainiko dute Sategin
Datorren asteartean,
Korrika Batzordearen bilera

197/2006 DOKTRINARIK EZ
RAMON HERRIRA!



Espetxean oraindik,
kalean behar zuenean



TXOTX! IREKIERA - URTARRILAK 12, LARUNBATA

**DASTA EZAZUE GURE SAGARDOA TXOTXEAN,
SAGARDOTEGIKO MENUA OSATZEN DUTEN BOST
PINTXOekin BATERA**

Ordutegia: Eguerdian 13:00tik 15:30tara eta iluntzean 20:00tik 22:30ra.
Gainera, txotx garaierako sagardotegi menurako deskontuak lortuko dituzul!



Sagardotegiko menua, karta, ezkontzak, menu bereziak...

Tel. 943 36 20 49 - 943 36 66 04 - Faxa 943 36 60 73 - www.arreta.com - ZUBIETA

Neguko
BEHERAPENAK
-%30

Marije
Arropa denda

Etxebeste 3 - 943 36 11 06 - USURBIL

**NOAUA! aldizkariaren
banaketa**
Ordezkoen lan-poltsa
osatzeko deialdia

Gaur egungo banatzailearen batek
bere lana utziko balu, ordezkoa
beharko genuke. Horretarako
osatu nahi dugu lan-poltsa. Bidali
eskaerak honako helbidera:
elkarte@noaua.com edo deitu
943 36 03 21 zenbakira

noaua



Tolare Sagardotegia

Petritegi baserria, Petritegi bidea 8
20115, Astigarraga
Tel. 943 45 71 88
www.Petritegi.com

Albistearen iruditan

Victor Gonzalez, arrantza txapelketan garaile

A benduaren 29an Andoainean ospatu zen Gabonetako I. Arrantza Txapelketa irabazi zuten Victor Gonzalez usurbildarrak eta Angel Machok. Amuarrainen arrantzan, euli modalitatean nagusitu ziren, parte hartu zuten 22 bikoteen artean.

Euskal Herritik eta kanpotik etorritako arrantzaleak bildu ziren Leitzaranean. Ekimena, Gipuzkoako Arrantza Federazioak eta Euskadikoako antolatu zuten. Guztira, 397 amurrairekin harrapatu eta txapelketa amaieran berriz uretan askatu zituzten. Horieta askok, 50 zentimetro baino luzeera handiagoa zuten. Sailkapen orokorrean, Gonzalezek talde kide zuten Angel Machok bigarren postuan amaitu zuen 23 izokin harrapatu ostean, sailkapen buruan geratu zen Aitor Urruzunorekin berdinduta.



Victor Gonzalez eta Angel Macho nagusitu ziren Gabonetako I. Arrantza Txapelketan.

Laburrean

Gabonetako otarraren zozketa

Usurbil Futbol Taldekoek gabonetako otarra zozketatu dute. "Beltza" usurbildarrak jaso duen arren, bere Bilboko lehengusu bati egokitu zaio la berri eman digute futbol taldekoek, eta oharra plazaratzea eskatu.

Guraso bilera Gaztelekuan

Larunbat arratsaldeko 15:00etarako guraso bilera deitu dute Gaztelekuan. Hitzordua, DBH 1. mailako ikasleen gurasoei zuzendua dago. Gunearen funtzionamendua edota burutzen diren ekintzen berri jasotzeko aukera izango dute.

KzGunea, urtarrilean goizez irekita

Goizeko 9:00etatik 13:00era irekita izango da KzGunea. Hilabete honetan ere, IT txartela ziurtagiria eskuratzeko aukera ugari izango da. Informazio gehiago Kale Nagusia 37an dagoen bulegoan edota telefonoz: 943 023 684.

noaúa

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaúa.com /// www.noaúa.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publikitate: Arantxa Zulaika,
publizitatea@noaúa.com.
Diseinu berria: Erroitx S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzio@noaúa.com:
Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainar

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euzko Lehen Herria

Euzko Lehen Herria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Urte berria, borobila askorentzat

Murgilduak gauden krisi egoeragatik edo, 2013a urte konplexua izango denaren mezuak iristen ari zaizkigu handik eta hemendik, bai atzo, bai gaur eta denok animatzen jarraitzeko, ziur baita bihar ere, urte berri honek gustuko oparirik ekarri nahi-ko ez baligu bezala. Aurretik ordea, 360 egun pasatxo ditugu eta ikusiko da, zer dakarren urte berri honek. Pasa den eguberrietan, emailaz jasotako zorion agur batek sormen urte ona izatea opa zidan. Sormena, abilezia, umore ona, eta une zailik biziko badugu, norbere jarrera giltzarri bihurtuko dira urte honetan ere. Txanponaren beste aldea, laino beltzak, eta ekaitza baino iragartzen ez dizkiguten honetan, inoiz baino gehiago baloratuko dugula 2013 honetako eguzki printza bakoitza.

Momentuz, egutegia eskutan, eta denboran atzera eginez... Badira

datozen hileotan beteko diren hainbat urteurren. Eta horiek, ziur 2013 honetan beteko dira. Hemen ere, denetarik dago. Garai ilunen oroitza-pena, beste urteurren gozoagoekin tartekatuta. Udalerrri mailatik hasita, eta berriki NOAUA!n jaso dugun ohar bati lotuta, urteurren sorta hau estreinatuko duen lehena, Kultura Aholku Batzarra izango da. Kultur arloko herri eragileen egungo bilguneak bost urte beteko ditu urtarrilaren 30ean. Martxoaren 3an berriz, kultur arloko eta gainerako herri eragileak bildu edota ekimenak antolatzea bideratua dagoen Potxoenea inauguratu zeneko lehen urteurrena beteko da. Hilabete horretan bertan igaroko da Usurbildik bestalde, adinez nagusi izatera iritsi den Korrika 18.

Lehenago ordea, bada gogorarazi beharko den urteurren ilun bat; Euskaldunon Egunkaria itxi zutela

hamar urte beteko dira aurren. Hamarkada bat, euskara hutsean argitaratzen zen egunkaria bidegabeki itxi, Egunkariako hainbat kide atxilotu eta hamarkada bat baita, elkartasun uholde hartatik. Euskal Herriak pairatu behar izan duen beste injustizia baten, hamargarren urtemuga beteko da baita 2013an. Urte askoren ostean lehen aldiz, herri honetako ahots guztiak hautskundeetara aurkeztu ezinik gelditu baitziren. Alderdi politikoen legez kanporatzeak errealitate bilakatu zirenetik hamar urte igaro dira jada.

2008ra bueltatuz, gutxiago, bost urte beteko dira aurren, krisialdi ekonomikoaren ondorioak pairatzen hasi ginela ziotenetik. Edota Usurbilen, hondakinen kudeaketaren inguruan aurrekaririk ez duen parte hartze prozesu bat abiatu zenetik. Urtemuga gozoetara bueltatuz, badira

2013an zoriendu beharreko herriko bi kirol talde; batetik, urrian 50 urte beteko ditu Usurbil Kirol Elkarteak. Mende erdiko ibilbidea osatu du eskubaloiak Usurbilen. NOAUA!ko hemerrotekaren arabera bestalde, 25 urte beteko ditu dominazjosia dagoen Usurbil Judo Klubak.

Ziur egon, beste hainbat eta hainbat urteurren borobil ahaztu zaizkit, herri mailan gogoratzeko modukoak izango direnak. Edota maila pertsonalean zuetako askoren eguneroko bizitzetan beteko diren beste hainbat. Tartean eta amaitzeko, urteurren borobilak beteko dituztenak daude; 25, (30... jajajaj), 50, 75... Zuetako askorenak izango diren horiek. Batzuei erreparoa, besteei poza, baina denei bizitzen jarraitzen dugula ospatzeko arrazoi bihurtzen diren urtebetetzeak izango dira. Eta urteak betetzen jarraitzea seinale ezin hobea denez... Urte berri on denoi!

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre

Ika-Mika

Errausketa eta minbizia. Ikerketa berriak, ondorio zaharrak

Environment International aldizkariak berriki CARLOS III osasun institutuko ikerlari talde batek egindako ikerketa lana ezagutzera eman du. 1997-2006 urte bitartean 8.000 herritik gortan jasotako datuak erabiliz egindako ikerlanaz ari gara. 33 minbizi mota aztertu dituzte eta ondorioa garbia da. Errauste planta batetik gertu bizitzeak gehitu egiten du minbiziaz hiltzeko arriskua. Halaber errauste plantak minbizia eragiten duten konposatu ugari- ren isurle direla diote txostenean. Dioxinak, arsenikoa, kromoa, ben-

tzenoa... eta beste mordo bat aipatzen dira bertan.

Artikulu honen helburua ez da ikerketaren alde teknikoan sakontzea. Horretan interesa daukanak honen inguruko informazio gehiago www.zerozabor.org web orrian topa ditzake. Guk azpimarratu nahi duguna ondorengoa da: errausketak sortzen dituen konposatu toxiko guztiak ez dira filtroetan gertatzen diren errautsetara mugatzen (Gipuzkoan urtean 14.700 tn izango lirake hauek), konposatuak tximiniatik kanpora ere zabaltzen dira eta gure gorputzean bukatzen dute

bai arnasten dugun airearen bidez, bai elikadura katearen bidez.

Hondakinak errausteak gizonemakume guztiok inguru osungarri batean bizitzeko dugun oinarritzko eskubidea urratzen du. Administrazioak eta arduradun politikoei herritarron oinarritzko eskubideak bermatzeko betebeharra dute, eta ez dute enpresa handien interesei men eginez eskubide hauek kaltetzeko zilegitasunik.

Gipuzkoan badago zehaztuta hondakinak erraustu gabe, zero zabor ereduari jarraiki kudeatzeko plan orokorra. Errauste plantaren

proiektua behin betiko bertan behera uztea, dauden aukeretatik merkeena izateaz gain, herritarron osasuna bermatzeko modu bakarra da alor honi dagokionez. Berandu baino lehen erabaki ausartak hartzeko eskatzen diegu arduradun politikoei, errauste planta eraikitzeak kontratuak behin betiko bertan behera uzteko, eta zero zabor nora-bidean joateko beharrezko azpiegiturak eraikitzeak, herritarron eskubideak babestea beraien lehenengo zeregina baita.

Usurbil Zero Zabor

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. Ale bakoitzean ez dira bi Ika-mika baino gehiago argitaratuko.

Ika-mika bat baino gehiago iristen bada, NOAUA!k idatzi horietako bat hurrengo ale batean argitaratzeko eskubidea izango du. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: urtarrilak 18. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 14.

Krisiari aurre egiteko jardunaldiak antolatu dira

Bizi dugun krisiari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Auzolanek, urtarrilaren 17 eta 18ra-ko Potxoenean; zehazkiago esanda, nola aurre egin ziklo ilun honi. Bitan zatitu dute ekimena. Lehen egunean, Nekane Jurado adituak parte hartuko du. Gure artean bizi dugun krisialdi ekonomikoaz jardungo du berak.

Ez du hitzaldi soila izatea nahi, ezta baida ere bultzatu nahi du Juradok. Beste eredu ekonomiko, alternatibo bat posible dela aldarrikatzen du. Intsumisioan, desobedientzian oinarrituko litzatekeena. Gogorarazten duenez, “ez badugu norabidez aldatzen, krisiak pobrezia garmatza”. NOAUA!ri adierazi dionez, bere esanetan, bestelako eredu bat gauzatzen hasteko, lehenik, garrantzitsua da “kontzientziatua izatea, hau ez dela krisialdi ekonomiko hutsa, baita baloreena ere”. Egungo eredu mantentzeko irtenbiderik ez dagoela dio, “egungo boteretik ezin da aldatu eredu. Estatuak ditu politikako instrumentuak. Eta ekonomia politika da azken finean”. Irtenbiderik bada ordea, bestelako eredu bat planteatzen bada. “Lokaletik erantzunak emanda, norbana-koak dituen beharrei”, dio Juradok. Bestelako eredu bat bultzatzeko proposamen zehatz bat ere egiten du; denboraren bankua bultzatzea.

Egungo ereduarekiko desobedientziaren alde agertzen da, baita independen-



Nekane Jurado Potxoenean izango da urtarrilaren 17an.

tziazen alde ere. Gai honi buruzko liburu bat argitaratu du. Aldarrikapen historikoa soilik ez, independentzia, gaur egun behar ekonomikoa dela defendatzen du. Langabeziari aurre egingo diona, parte hartzea bultzatuko duena, aberastasun banaketa orekatuagoa eragingo duena...

EGITARUA **Urtarrilak 17, osteguna**

19:00 Potxoenean: “Zer egin dezakegu krisiaren aurrean? Zer gertatzen ari da Grezian?”. Hizlariak: Nekane Jurado eta greziar bat.

Urtarrilak 18, ostirala

19:00 Potxoenean: Krisiari aurre egiteko udal eta herri eragileen proposamen zehatzen aurkezpena. Gerora, udaletxean eztabaidatu eta estrategia adostu bat bultzatu nahi da.

Antolatzailea: Auzolan.

“Pura vida” dokumentalaren proiektzioa Sutegin

Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak “Pura vida” pelikula eskainiko du ostiral honetan, urtarrilak 11, arratsaldeko 19:30ean Sutegin. Sarrerak mugatuak dira eta salgai dardede Lizardi dendan (3 euro).

Iñaki Otxoa de Olza mendizalearen erreskatearen nondik norakoak eta bertatik bertara parte hartu zutenen testigantzak jasotzen ditu “Pura vida” film luzeak. Pablo Iraburu eta Migueltxo Molinak zuzendua; Txalapart eta Arena Comunicacionek ekoitzia. Donostiako Zinemaldian sari bat jaso zuen.

“Pura vida” dokumentala

- Urtarrilak 11 ostirala.
- 19:30ean Sutegin.
- Azpituak euskaraz.
- Iraupena 81 minutu.



Iñaki Otxoaren inguruan osatuta dago “Pura vida” dokumentala.

Ika-Mika

Ugarte baserria okupatu dugu

Etxebizitza funtsezko eskubidea dela uste dugun gazteez osaturiko kolektibo bat gara. Inori berea dena kendu gabe, erabiltzen ez diren espazioak bererabiltzearen ideia defendatzen dugu.

Gure asmoa Ugarte baserrian gure bizimodua egitea da. Elkarbizitzan, errespetuan, konfiantzan eta elkarrenganako laguntzan bizilagunen artean.

Gure proiektuaren xedea autogestioa, auto-organizazioa, asanblada eta elkartasuna oinarrituen bizi era alternatibo bat sortzea da.

Gaur egungo sistema ekonomiko bortitzak gutxi batzuei aberastasun handia emanez, gizartearen gehiengoa kale gorrian uzten du. Etxe huts mordoia ikus dezakegu etxe kaleratzeen lapurretatetik, hori dela eta, etxebizitza eskubi-

dea geure egitera goaz. Ekintza zuzena erabiliz, alternatiba sortuz.

Etxebizitza, eskubide konstituzionala da. Beraiek nahi izan duten bezala jolastu dute gure ustez, eta eskubideak ez dira errukitzen, ez badira defendatzen, galtzen dira.

Ugarte baserrian bizi nahi dugu, horretarako, herritarrokin ondo eramatea eta erlazio ona izatea nahitaezkoa dela iruditzen zaigu. Jakinarazi nahi dizuegu etxe hone-

tako atek behar duzuenarentzat irekita daudela, zerbaiten beharra izanez gero edota gu ezagutzeko kafetxo bat hartzera pasa nahi baduzue, hemen gaude.

Gure aurkezpena amaitzeko esan; zeuen etxeetan erabiltzen ez duzuen zerbait badaukazue gus-tura berrerabiliko dugula!!

Ugarteko gazte okupak

“Presoei eta senideoi egokitzen zaigu Estatuaren estrategia hau pairatzea”

Zigorra osorik bete ostean, kalean behar zuen Ramon Uribek abenduaren 3an. Baina hilabete igarota, kalezartarrak Topasen (Salamanca) espetxeratuta jarraitzen du. Bere etxekoekin izan gara solasean.

Preso eta senideak estatu espainiarraren helduleku direla gogorarazi digute lerrotan, Ramonen arreba Ainara eta Mari Marrek. Anaiak eta eurek azken hilabete hau nola bizi izan diguten azaldu diote NOAUA!ri. Larunbatean Bilbon deitua dagoen manifestaziora joateko deia egiten dute, presoengatik, Ramonen eta gainerako presoen eskubideak errespetatuak izan daitezten eskatzeko. Usurbildik Bizkaiko hiriburura joateko autobusa antolatuta dute. Izen ematea, ohiko lekuetan.



Ramon Uriberen bi arreba, Kalezartarrak Topasen (Salamanca) espetxeratuta jarraitzen du.

Kalean behar zuela hilabete igaro da. Zer moduz dago Ramon? Nola bizi izan zituen abenduaren 3ko gertaerak?

Mari Mar Uribe. Abenduaren 3a baino lehen urduri zegoen, bazekien espetxean geratzeko aukera asko zeudela. Baina bestalde, esperantza txikia ere bazegoen. Bere kideek aterako zela esaten zioten, agurtzen ari ziren. Baina bera egia esan oso zentratua, oso indartsu zegoen.

Berak bazekien hau gerta zitekeela eta hala izan zen. Guk berari animuak eman beharrean, berak eman dizkigu guri.

Ainara Uribe. Urduri zegoen ezjakintasun horren aurrean. Baina gero zer gertatu zen jakinda, bera ere lasaitu egin zen. Esan zuen bazekiela estatu espainiarraren beste estrategia bat dela aplikazio hau, eta aurre egin behar zaiola honi. Beraiek ere badakite estatuak duen arma bakarria presoak eta senideak direla.

Orduan euren eta guri egokituko zaigu familiar bezala, es-

MARI MAR URIBE

“Ramonek bazekien hau gerta zitekeela. Guk berari animuak eman beharrean, berak eman dizkigu guri”

tatuaren estrategia hau pairatzea.

M.M.U. Berari egin diotena, azken momentura arte ezer ez esatea, beste tortura mota bat da.

Abenduaren 3ko mobilizazioan hain zuzen, egun ba-

tzuk lehenagotik Ramon aske ez uztea erabakia zegoela jakin zen?

A. U. Hamar egun lehenago jada erabakia hartua zegoen. Berak zigorra abenduaren 3an betetzen zuenez, abenduaren 3an esan zioten ez zela aterako. Azken unera arte itxaron zuten.

“BABES HANDIA JASO GENUEN”

Berria jakin bezain laster, mobilizazio astea antolatu zen herrian. Senide bezala egun haiek nola bizi izan zenuzten?

A. U. Jendearen jarrera positiboa izan zen. Babes handia jaso genuen eta hori eskertu behar dugu. Ramonek ere behin eta berriz errepikatu du eskertzeko denei banan bana, babes handia jaso duelako.

Baita udaletxean, mozioa ere aho batez onartu zen eta hori ere eskertzen du bai Ramonek eta bai familiak.

M.M.U. Jende asko mugitu da.

A.U. Normalean, hilero azken ostiraletako kontzentrazioetan parte hartzen ez duen jendea ere mugitu egin zen. Babes handia jaso dugu.

Azken bisitan ondo ikusi zuten, “indartsu”

Nola heldu zaio Ramoni, egun haietan Usurbildik bidalitako elkartasun mezua?

A.U. Telefonoz deitzen zuen eta bai etxekoekin eta bai lagunak transmititzen zioten zenbat jende ari zen mugitzen abenduaren 3ko astean.

Hurrengo asteburuan, larunbatean, etxekoekin, Ramon bisitatzea

joan ziren. Ama lehen aldiz egon zen berarekin. Prentsan argitaratutako albiste guztiak eman zituzkion, Internetetik jaitziko albiste guztiak. Argazkiak ere ikusi zituen. Igande hartan lagunak joan ziren eta beiran jarri zioten, Ramon aske uztea eskatzeko abendu hasieran banaturiko txartela.

M.M.U. Bisitatik oso gustura ateratu ziren, Ramon ondo ikusi zuten, indartsu.

Azkeneko igandean bisita izan zuten eta oso gustura ateratu dira. Lagunak orain gutxiagotan joan daitezke bisitan, bi edo hiru hilabete behin. Sei hilabeteko bisitetan hamar lagun bakarrik joan daitezke.

“Aspaldiko jendea animatu da berriz bisitetara”

Antolatu berri dituzue hurrengo hilabeterako bisitak. Nola lotzen dituzue?

Ainara Uribe. Urtarriletik ekainerakoak antolatu ditugu. Sei hilabete behin hamar laguneko bisita baimena dute. Hau, Espetxe Erakundeak jartzen duen beste oztopo bat da. Horrek, hamar lagun horiek sei hilabete horietan konpromiso bat hartu behar izatea ekartzen du. Bi hilabete behin joan behar izatea.

Mari Mar Uribe. Bizpahiru jotzen dira, eta senideak nahi dugunean joan gaitzake. Abenduan gertatutako guztia-ekin, aspaldiko jendea animatu da berriz bisitetara. Urte asko dira jada, urruti egon da. Espetxe batetik bestera mugitu dute.

“KATXEOAK EGITEN DIZKIGUTE ORAIN”

Bisitekin gertatu bezala, beste hainbat eskubide urraketa pairatu ditu Ramonek eta zuek, senideok.

A. U. Deiak bost minutukoak bakarrik dira. Astean bi esku-titz bakarrik idatzi ditzake. Guri baita “bis a bis”-etan sartzean katxeok egiten dizkigute orain. Beraiek zenbaki batzuk dira, egin behar duzuna da legeak ahalik eta zorrotzen bete, bestela arriskua duzu bisita gabe geratzeko, edo presoak zigorra jasateko.



Herritarren elkartasuna eta berotasuna jaso zuten Ramon Uribek eta bere etxeok.

AINARA URIBE

“Alde batetik urrats asko eman direla ikusten da; eta beste alde batetik inolako mugimendurik ez da ikusten”

M. M. U. Eta espetxe aldekako guztiak hor daude. Azkene-koz, Gasteiztik Topasera eraman zuten.

Mobilizazio astean gogorara-zi zenez, Ramonen egoera berean dira beste hirurogei-tik gora preso. Martxoari be-gira zaudete orain. Bi hilabe-te barru zer gerta liteke?

M. M. U. Hainbat presoren egoera berrikusi behar dute.

Ines del Rio eta beste 24 pre-soren egoerak. Pertsonalki, psikologikoki horri heldu be-har diogu.

A. U. Estrasburgotik martxo-a-ren 20an erantzuna jasoko da. Baina ikusita orain arte estatu espainiarrak zer kasu egin dion Estrasburgori, gure zalantzak baditugu zer gerta-tuko den egun horretan. Bai-na orain esperantza horretan dago.

INPOTENTZIA HANDIA Esperantzari eutsi beharra ezta?

A. U. Errealistak izan nahi genuen abenduaren 3an. Abokatuak ere esaten zigun ilun zegoela, seguru aski ez

zela aterako. Abokatuak ezet-zen esaten zuen. Baina hor dago esperantza.

Ikusten da alde batetik urrats asko eman direla, eta bestetik, inolako mugimendurik ez da ikusten. Orduan inpotentzia handia da.

M. M. U. Orain martxokoari heldu behar diogu. Nik uste dut zerbait gertatuko dela, martxoan ez bada, aurrerago.

Konponbide giro honetan, presoen gaian aurrerapauso-rik ematen ari direnik ez di-rudi?

A. U. Argi ikusten ari gara, es-tatu espainiarraren oraingo hel-dulekua presoak eta familiarrak direla.

Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
943 37 29 37
Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL

BENTA TABERNA
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
**943 24 01 76 eta
649 435 470**
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Larunbatean Bilbora joateko deia, “giza eskubideak errespetatzea eskatzeko”

Herri Mobilizazio Orokorra larunbatean Bilbon. Azken urteotan izugarrizko indarra hartu du mobilizazio honek. Baita azken ostiraleko elkarretaratzeek.

Ainara Uribe. Egun horretako manifestazioa oso indartsua izaten da. Indar berrieta etortzen gara handik, baina beti geratzen gara nahikoa ez den sentsazioarekin. Baina oso positiboa da. Eta ikusten da geroz eta jende gehiago hurbiltzen dela. Geroz eta jende gehiagoren ahotan dagoela presoekin egiten ari diren injustizia. Horrek ere indarra ematen du eta eskertzekoa da. Azken ostiraleko mobilizazioetan baita, azken urte eta erdian jende kopurua bikoiztu da.

Sentsibilizazio lan bat bada honen atzean ezta?

Mari Mar Uribe. Beste ikuspegi batetik ikusten da gaia. Presoak ez bakarrik ETakoak direla, baizik eta pertsonak direla. Eta bere eskubideen alde ari garela borrokatzen.

Zergatik joan Bilbora larunbatean?

M.M.U. Batez ere presoenegatik. Giza eskubideak errespetatzea eskatzeko. Injustizia handiak daude.

A.U. Presoak denonak dire-



Bederatzi alderdi politikok bat egiten dute manifestazioarekin: Ezker Abertzalea, Aralar, Alternatiba, Eusko Alkartasuna, Ezker Batua-Berdeak, Eusko Ekintza, Gorripidea, Euskal Herriko Komunistak eta Antikapitalistak.

lako. Beraiei ere indarra bidaltzen zaie manifestazioen bidez. Eta beste hainbat gauza ere egin daitezke; eskutitz bat bidaltzea, edo postaltxo bat. Beraiek komunikazio hori, haize berri pixka bat eskertzen dute. Familiarrak eta lagunak saiatzen gara eten hori ez izaten, beraiek ere herriko eta familiako errealitatean txertatuta egon daitezen, baina haize berria ere eskertzen dute.

Senideek ere sufritzen dute, preso dagoena urrun izatea?

A.U. Familiarentzat desgaste ekonomikoa, fisikoa, emozionala handia da. Guk

zortea dugu laguntza jasotzen dugulako. Badira Parisera joaten direnak, edo Almeriaraino laguntza ekonomikorik gabe. Ardura da baita. Herrirak laguntzen digu bisitak antolatzen. Baina asteroko ardura da, asteburuan nor joango den lotzea. Astebete lehenago jakin behar da zein joango den, Ramonek instantzia sartu, amak deitu behar du bisita konfirmatzeko. Funtzionarioak esango dizu baietz, edo ezetz, ezin direla joan. **M.M.U.** Eta gero bidariarena, errepideko arriskua, eta hori dena. Ardura da. Ondo iritsiko ziren bisitara, ondo etorriko ziren etxera.

Autobusez Bilbora

Larunbaterako, Bilbora joateko, urtero moduan, autobusa antolatu du Usurbilgo Herrirak. Ohi bezala, alde aurretik izena eman beharko da, lekuotan; Aitzaga Elkarte-an, Usurbilgo Gaztetxean edota tabernetan. Antolakuntzatik, izen ematea azken unerako ez uztea eskatzen dute.

Autobusa, urtarrilaren 12an, 15:30ean abiatuko da Bilborantz. Manifestazioa berriz, Casillatik abiatuko da 17:30ean.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Jendetsua, gaztain ukituko Santo Tomas azoka



Sagardo txapelketako irabazleak, epaimahaikideekin batera.

Eguberri harrera egin zien Santo Tomas azoka egunez, giro goxoak erakarrita, jendez bete zen frontoi ingurua. Batzuk, sagardo lehiaketara aurkezturiko usurbildar ekoizleen edariak dastatzera hurbildu ziren. Besteak, talo goxoak jatera. Babarrun lehiaketara aurkeztutako ekoizleen produktuak ere ikusgai izan ziren. Mugimendua baita, Udarregi Ikastolako enpostre gozoz postuan, kilometroak 2013ko antolatzaileek Dema plazan jarritako gunean, baita Herrirak Aitzaga ondoan kokatua zuen postuan ere.

Gaztainak izan ziren azken azokako protagonista nagusietakoak. Herritar talde bat gaztainak banatzen aritu zen Dema plazan. Bestalde, aurtengo berrikuntza, gaztaina osagai nagusia zuen Atxega jatetxeak eginiko musak ere harrera

ona izan zuen.

Edozein kasutan, eguneko arreta gune nagusia, frontoiko oholtzak bereganatu zuen, eguerdi partean. NOAUA! Kultur Elkartek, Sagardo Egunaren Lagunak, talogile, Udarregi Ikastola edota hainbat herritarren laguntzaz antolaturiko azokaren baitan, sagardo eta babarrun lehiaketetako sariak banatzeko unean hain zuzen. 150 euro eta txapela jaso zituzten txapel-dunek. 90 euro bigarren sailkatu zirenetzat, eta 50 eurora hirugarren geratu zirenek. Hauek dira, 2012ko Santo Tomas azokako sarituak:

SAGARDO LEHIAKETAN

1. Joseba Zuloaga, 2. Mikel Rekondo, 3. Mila Aizpurua.

BABARRUN LEHIAKETAN

1. Manuel Aizpurua, 2. Jose Kruz Matxain, 3. Juan Karlos Balerdi.

Kabalgatako eskertza

Hitzordura puntual agertu ziren urtarriaren 5ean Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Urdaiaiatik abiatu eta frontoirainoko bidea lagunez inguratua eta gozokiak oparitzu osatu zuten. Herritarrez bete zegoen frontoian amaitu zen kabalgata. Erregeei azken desioen berri emateko edota azken gozokiak jasotzeko aukera izan zen. Errege Egun bezperako ekimen hau antolatzen duen Ziortza Gazte Elkartek "eskerrak eman nahi ditu aurtengo kabalgata aurrera eramateko urte guztian zehar laguntzen egon diren guztiei".



Errege Magoak, frontoira iritsi berritan.

Danborrada, urtarrilaren 18an


San Sebastian Eguna bezperan ospatu ohi dute Udarregi Ikastolakoek, danborra joz. Aurten ordea, asteburuan egokitzen delako, egunbete aurreratu dute emanaldia. Hilaren 18ra, arratsaldeko 16:00ak aldera, hitzordurako egoki jantzita emanaldia eskainiko dute ikasleek.



Arratsaldeko 16:00ak aldera hasiko da.

Gabonetako argazkiak eta bideoak, sarean ikusgai

Oporrak, gehiegizko jan edanak, festa egunak... etorri bezala, konturatzeko ospa egin dute beste behin. Zailtzat jotzen duten urte berria ere hasi dugu. Urtarrileko aldapa gozatzeko ordea, lagungarri egingo zaizkigu azken asteotan burutu diren ospakizun ezberdinetako irudiak. NOAUA-ren web orrian jaso ditugu gehiago.



Argazkitegian jaso



NOAUA TB kanalean jaso

QR kode hauek baliatuz, telefono bidez ikus ditzakezu irudi eta bideo hauek guztiak. Bestela, www.noaua.com web orriko "Argazkitegian" sartuz edo NOAUA! TB kanalean klik egin.

Lokal komertzial izandako etxebizitzak, tasatuen pare



Erreka Txiki kalean badira mota honetako etxebizitzak.

Lokal komertzialak etxebizitza gisa erabiltzeko ordenantza onartuta zegoen lehendik ere. Etxebizitza horiek saldu edota alokairuan jarri nahi duenak, abenduko plenoan onartu ziren oinarriak jarraitu beharko ditu. Tasatuen izaera izango dute etxebizitza hauek. Honek zer esan nahi du? Finean, zozketa bidez esleitu-ko direla.

Modu honetako etxebizitzak zozketa- zeko, bi zerrenda osatuko dira: salmenta bidez esleitu-ko diren kasuentzako zerrenda bat; alokairuan esleitu-ko diren-entzat beste zerrenda bat.

Itxaron-zerrendak osatuko dira eta zerrenda horietan aurkeztu ahal izateko baldintzak zehaztu dira.

Beraz, lokal komertzial izandako etxebizitzak, jabetzan nahiz alokairuan, zozketa bidez arautuak geratu dira. Etxebizitza tasatuekin egiten den moduan.

Plenoko gai honetan, Bilduk eta Arala-

rreke alde bozkatu zuten, PSE-EE eta Hamaikabat alderdiek aldiz, abstentziora jo zuten.

IGERILEKUEN INGURUKO ORDENANTZA ONARTUA IZAN DA

Igerilekuen instalazioa arautzeko udal ordenantza ekaina partean abiatu zen. Alegazioak egiteko epean, hiru aurkeztu ziren. Bat onartu da (15 metro kubikoko igerilekuak ere kontuan hartzea), eta beste bi alegazioak atzera bota dira.

Ordenantza honetan igerilekuen erabileraz gain, arau-haustea eta zigorrak ere zehaztuta geratu dira. Dagoeneko igerilekua dutenek 10 hilabeteko epea izango dute arautegi berrira egokitzeko.

Mertxe Aizpurua alkatea esan zuenez, "uraren kontsumoa modu arduratsuan erabiltzea" izango da ordenantza honen helburu nagusietakoa.

Gai honek Bildu, Aralar eta PSE-EEren aldeko bozkek jaso ditu. Hamaikabat alderdiak abstentziora jo du.

2013ko ordainsarien aurrerapena onartu da udaletxean

A benduko paga ez ordaintzeak udal langileen erosteko ahalmenean murrizketa bat suposatzen duenez, "proposatzen dugu 2013ko uztaileko nahiz abenduko aparteko ordainsariak 2013ko urtarrileko eta uztaileko lehen asteetara aurreratzeko", adierazi zuen udal gobernua abenduaren 20ko ez-ohiko udalbatzaren bilkuran. "Gai hau Pertsonalگو Batzordean lantzeko gaia zen", adierazi zuen Luismari Ormaetxeak. Aralarren izenean, Jose Ramon Furundarenak ere antzeko balorazioa egin zuen. Langile guztiei informatzea eskatu zuen halaber Luismari Ormaetxeak, ez bakarrik sindikatuei. "Eta hirugarren puntu bat falta da: kontuhartzaileari eta langile guztiei berri ematea, eta ez dago jasota". Puntu hori gehitzeko arazorik ez zela izango azaldu zuen idazkariak.

AHOBATEZ ONARTUA

PSE-EEko zinegotziaren galderari erantzunez, "langile guztiei neurri berdina aplikatzen zaie eta gu langileen barruan sartzen gara", aitortu zuen alkatea. Udal gobernua- ren izenean liberatuak daudenak (alkatea eta bi zinegotzi) ez dutela abenduko paga extra-rik kobratu, alegia.

Puntu hau ahobatez onartu zen. Beraz, langileek 2013ko ordainsariak aurrerapenez kobratu ahal izango dituzte. Aurreratzeko hori borondatezkoa izango denez, langileek euren eskatu beharko dute hala egitea.



Abenduaren 20an hartu zen erabakia.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

URAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Otar-Goxo
Elizkarguak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Kutsadura arazoak kezka gaia izaten jarraitzen du



Herri batzarra deitu du ITAYAK ostiral honetarako. 19:00etan Potxoenean.

Irailaz geroztik egin bezala, joan den urtarrilaren 5a urtarrileko eta urteko lehen ostirala izanik, kutsaduraren aurkako elkarretaratzea burutu zen Mikel Laboa plazan. Itaya Gazte Asanbladak deituriko mobilizazio honen bidez, ke eta usain txarren arazoak konpontzeke jarraitzen duela gogorazi zen.

Irailaz geroztik deitu izan duten ekimen honen pankartak "UCINek gure osasunarekin jolasten du" salaketa aldarria jaso zuen beste behin. Oraingoan ordea, pankarta berean, Itayak ostiral honetarako, urtarrilaren 11rako egin duen deialdiaren berri ematen zen. Herri batzarra antolatu baitu gazte asanbladak, ostiral iluntzeko 19:00etarako Potxoenean. Herriarrak aipatu hitzordura gerturatzerako deitu zituzten.

ELKARTZEKO DEIA

Baita alde zuzenetik, NOAUA!ra bidali zu-

ten mezua ere. "Denbora dezentet da Usurbilgo UCIN enpresak botariko kea eta usaina jasaten ari garela, benetan jakin gabe zer sustantzia diren eta hau zenbateraino kaltegarria izan daitekeen gure osasunarentzat. Aluminioko txatarrak urtzen dute labe handi batean, prozesu honetan aluminioaz gain pintura, plastikoa eta mota guztietako produktuak erretzen direlarik. Arazoa ikusirik ITAYA gazte asanblada azken aldian hileroko lehen ostiralean 20:00etan Mikel Laboa plazan kontzentrazioak antolatzen ari da. Hala ere, dirudenez honek ez du UCIN askorik kezkatzen. ITAYA-k deiturik urtarrilak 11n 19:00etan herri batzarra izango da Potxoenean. Herriarrak elkartu eta arazoaren inguruan hitz egingo da, soluzio bat lortzeko asmoz herriarraren artean egin daitekeena aztertuko da eta azken helburua lan talde bat sortzea izango da. Animatu eta parte hartu!!", deitzen diete herriarrei NOAUA!ra bidali duten mezua bidez.

Erradiazio elektromagnetikoei buruzko solasaldia

Ingurumen alorreko beste arazo bat hizpide izango du bestalde, Usurbilgo Udalak urtarrilaren 15erako antolatu duen solasaldia. "Erradiazio elektromagnetikoa eta osasuna" ahotan hartuko ditu udal ingurumen alorreko zinegotzi eta sare informatikoen arloan EHUko irakasle den Jose Maria Rivadeneyrak. Erradiazio elektromagnetikoa zer den, osasunarentzat kaltegarria ote den, edota aditu desberdinek gai honen inguruan diotenaren berri emango du gobernu taldeko kideak, hilaren 15ean, iluntzeko 19:00etan hasita Potxoenean. Usurbilgo Udaleko udalbatzak gai honi loturiko mozioa onartu zuen aho batez, joan den azaroaren 27an burutu zen osoko ohiko bilkura.

Udal baratzetan izena emateko epea

Urtarrilaren 23ra arte irekita jarraitzen du Agerreazpiko udal baratzetan zozketan parte hartzeko izen emateak. 18 urtetik gorako usurbildarrak apurta daitezke. Lurra lantzeko 30 metro karrutuko partzela bat edo bi eska daitezke. Eskatzaileen artean, lehentasunak finkatu ditu Udalak. Eskeraer udaletxean aurkeztu behar dira. Informazio gehiago bertan, edo www.usurbil.net atarian.



Urtarrilaren 23ra arte dago epea.

TAXI
24 h
USURBILLEN

677 37 34 66] Joxe
943 36 21 78] Etxabe

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

WHEEL ACADEMY

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa - Selektibitate
- Lanbide heziketa
- Ikasketak teknikoak - Hizkuntzak

629944690
Galtzaragaña 1, behea USURBIL

Sarean ere **noaua** euskararen aterpe

Jarraitu gaitzazu
Facebook-en,
Twitter-en eta
www.noaua.com
helbidean!



Bazkidea zara
eta oraindik ez duzu zure
oparia jaso?
Zatoz Noaua!ren bulegora eta hartu
zure oparia!

noaua
euskararen aterpe

Sendabelar ikastaroa Usurbiltzenen eskutik

Bi ikastaro antolatu ditu Usurbiltzenek, datozen asteotarako. Batetik, ogia egiteko ikastaroa, urtarrilaren 26an 9:30-14:00 artean, Agerialdeko jangelan. Interesdunek, alde zurretik izena eman beharko dute, 608 566 683 (Beñat) telefono zenbakira deituta. Ikastaroko prezioa, 30 eurokoa da.

Irekita dago baita, Usurbiltzenek antolatu duen sendabelar ikastaroan izen emateko epea. 48 orduko iraupena izango du. Klaseak larunbat goizero, Usurbilgo Gaztetxean burutuko dira, 9:30-13:30 artean. Laura Gurbindo aditu nafarrak bideratuko ditu saioak eta "bertan sendabelarren herbario bat egingo da irteerak eginez, sendabelarrak biltzeko garai egokiak zein diren ikasi, beraien atal erabilgarriak edo propietateak zein diren,... Hortaz gain sendabelarrekin egin daitezkeen gauzak egiten ere ikasteko aukera izango da: ukenduak, txanpuak, landare estraktuak, olio sendagarria...".

Antolatzaileek noaua.com web orrira bidali duten mezuan berri ematen dute-

Ostalaritza eta merkataritza euskalduntzeko saioak

Buruntzaldeko udalek, tartean Usurbilgoak, "Nik ere euskaraz lanean" (NEL) izeneko saioak antolatu dituzte hasi berri dugun urte honetarako. Egitasmoa, eskualdeko merkataritza eta ostalariei zuzendua dago, sektore honetan euskara sustatzeko asmoz.

Saio hauei buruzko zehaztasunak, ostegun honetan (urtarrilak 10) arratsaldeko 16:00etan Potxoenea kultur etxean burutuko den aurkezpen ekitaldian.



Klaseak larunbatetan egingo dira, gaztetxean.

nez, ikastaroa taldea osatzean hasiko da. Urtarrila amaieran edota otsaila hasieran. Apuntatzeko deitu, 608 566 683 telefono zenbakira edo idatzi usurbiltzen@gmail.com helbidera, "sendabelarrak" izenburuarekin. Ikastaroko prezioa 100 eurokoa da, antolatzaileek ohartarazi dutenez, "ikastaro hauetarako gobernuak ematen zituen diru-laguntzak erabat kendu baitituzte". Ikastaroak jarraipena izan dezake beste 48 orduz, taldeak gaian gehiago sakontzeko nahia erakusten badu. Usurbiltzenetik aditzera eman dutenez, "agian jarraipen hau ez da ordaindu beharko gehiago, diru-laguntza lortzen bada".

Inauterietarako erraldoi konpartaren entsegua

Usurbilen erraldoien konpartsa bat sortu asmoz, ikastaroa antolatu dute. Lehen entsegua igande honetan goizeko 10:00etan Gaztetxean. Aitor Aiestaran gazteak gidatuko du saioa. Asmoa, otsailaren 9an ospatuko den Inauteri Festan erraldoiekin kalejiran irteteko prestatzea da. Azken asteotan, ikastaro honetan izen emateko aukera egon da. Apuntatu direnek eta ez direnek, guztiek parte har dezakete, igande goizeko entsegu saioan.

Kultura aholku batzordearen bilera

2013ko Kultura Aholku Batzarraren lehen bilera deitu dute, datorren aste-rako, urtarrilaren 16rako. 18:30etan Potxoenean. Herriko kultur eragileek ahotan hartuko duten gaietako bat, diru-laguntza deialdi berria izango da. "Eskertuko genizueke aurreko urteko deialdirako ekarpenen bat egin nahi izanez gero, proposamena bilera-bera bertara ekartzea", deia egin dute. Hona-ko beste kontuok ere jorratuko dituzte aholku batzarreko kideek: aurreko bilerako akta onartzea (2012-11-06), kulturako web orri berria, Potxoenea erabiltzeko giltzak eta norberak bileran planteatu dezakeen bestelako gaien bat.

Ahalduntze ikastaroak, martxora arte

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak herriko emakumeei zuzenduriko ahalduntze ikastaro berriak antolatu ditu. Urtarrilean abiatu eta martxora arte luzatuko diren hiru ikastaro hain zuzen. Izen emateko deitu 943 371 951 edo 943 377 110 telefono zenbakietara, edo idatzi, parekidetasuna@usurbil.net helbidera. Ikastaro hauei buruzko zehaztasun gehiagoren berri, hemen:

"Nire sexualitatea lantzen"

■ Asteleheneretan 14.30-16.30, yoga lokalean. Irakaslea: Elena Jimenez sexologia (euskaraz). Hasiera data: urtarrilak 14.

"Ahalduntzea eta generoa"

■ Ostegunetan 14.30-16.30 yoga lokalean. Irakaslea: Pepa Bojo psikologoa (gaztelaniaz). Hasiera data: urtarrilak 11.

"Gure emozioak lantzen"

■ Ostegunetan 17.00-19.00, yoga lokalean. Irakaslea: Pepa Bojo (gaztelaniaz).

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrok eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com


ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL


ARTZABAL
Baserría - Jatetxea

Futbolari jubenilak, ohorezko mailan aurten

Nola diren kontuak. Duela hamarkada bat, Iñigo Etxeberria Usurbil FT-ko erregionalen talde sortu berria entrenatzen hasi zen. Talde horretan jokatu dutenetako bat dugu Iñigo Etxaniz usurbildarra. Orain biak batera, denboraldi honetan ohorezko mailara igo den jubenilen taldea zuzentzen dabiltza. Udatik hona hobetzen gainera, bai emaitza aldetik, baita taldeko funtzionamenduaren ikuspegitik ere. Kategoria mantentzea dute erronketako bat. Bestea, talde mailako jarrera hobetzen segitzea.



“Denboraldi hasieran baino gol gutxiago sartzen dizkigute”, esan digute entrenatzaileek.

Aurkeztu ezazue taldea.

Iñigo Etxeberria. 19 jokalariz osaturiko taldea gara. Iaz jubenilen lehen mailatik ohorezko ligara igo ziren. Uste dut Usurbilgo jubenilen taldeak ohorezko mailan jokatzen duen lehen aldia dela honakoa. Kadeteen laguntza dugu. Sarri gurekin jokatzen duten bi kadete ditugu.

Nola moldatzen zarete maila berri honetan?

Iñigo Etxaniz. Hasiera zaila izan zen. Kostata ibili ginen. Guk ere ezagutu egin behar mutilak, asmatu arte bakoitza non jarri, gaizki ibili ginen. Gol asko jaso genituen. Orain ordea hartu diogu neurria.

Denboraldiko lehen zatia osatu duzue. Zer balorazio egin dezakezue?

I. Etxaniz. Aurre denboraldiko partidetan nahiko txukun aritu ginen. Partidaren batzuk galdu ta gero. Azkenean, aldaketa batzuk egin genituen, asmatu eta begira orain.

I. Etxeberria. Zortzi partida daramatzagu galdu gabe. Horrek ondo gaudela esan nahi du. Azken partidaren ere hiruga-

renaren aurka bere etxean jokatu genuen, As-tigarragan.

P a r t i d a zaila izan zen, lesionatu eta guzti. Oso gaizki jarri zen partida, eta halere irabazi genuen. Urtea oso pozik amaitu genuen, oso ondo bukatu dugu kirol mailan.

2013ari zer eskatzen diozue, nola ikusten duzue bigarren zatia?

I. Etxaniz. Nagusiki, jokalarien portaera hobetzea lortu nahi dugu. Jokalariek portaera hobetu behar dute entrenamendu saioetan. Halere, lehen entrenamendu saioetatik hona zerkusirik ez, alde badago.

I. Etxeberria. Egoera konpontzen ari gara. Gure asmoa urtea alor honetan ondo bukatzea da eta gero kategoria salbatzea. Posible da egoera konplikatzeko, baina egoera onean gaude.

Sailkapen aldetik nola zaude- te, mailari eusteko nola amai-

“Jokalariek portaera hobetu behar dute entrenamendu saioetan”

tu beharko zenukete denboraldi hau?

I. Etxeberria. Hiru talde jaisten dira mailaz. Eta orain azken hirugarrena, hamahiru puntura dago. Ia ezinezkoa da guk mailaz jaitea, beraien partida asko irabazi behar dituzte eta

guk ia denak galdu. Baina nik pentsatzen dut, bigarren itzulian bizpahiru neurketa irabazten baditugu, horrekin nahikoa izango dela salbatzeko. Eta ziur aski, partida batzuk soberan izango ditugu. Hori da helburua. Lehen postuetan gertatzea, zaila izango da, bizpahiru talde oso indartsu baitaude.

Zein dira taldearen indar gu- neak?

I. Etxeberria. Jokalariak tekniko oso onak dira, talentu askoko lau bat jokalaririk ditugu, beste multzo bat dago teknika gutxi dutenak baina indar asko, eta besteak ere ondo moldatzen dira. Hamaikakoa ateratzeko talde nahiko indartsua dugu. Gol asko sartzen ditugu taldeak. Gol asko jasotzen ditugu baita. Partidaren ez gara

aspertzen.

I. Etxaniz. Jokalariak ondo kizatzea lortu dugu eta horrekin irabazi dugu indarra. Lortu dugu ditugun jokalariekin, defentsan, erdigunean eta aurrera indartsu joatea. Horrela, denboraldi hasieran baino gol gutxiago sartzen dizkigute.

Zer esan jokalariei?

I. Etxeberria. Konpromisoa. Urtea hasiz gero, konpromisoa hartu eta entrenatzaile gogotsu, ondo pasatzera etortzea. Positiboak izatea.

I. Etxaniz. Portaera hobetzea, konpromiso faltarekin etortzen dira eta.

Entrenatzaileak:

Iñigo Etxeberria, Iñigo Etxaniz.

Jokalariak:

Aritz Zabaleta, Ekhi Ajuria, Julen Iraola, Endika Larrañaga, Herri Harto, Jon Ander Bruño, Xabier Aranburu, Ander Mangas, Ibai Marcos, Iñigo Sasiain, Jon Galbete, Iosu Zalakain, Aratz Manterola, Eneko Portu, Ander Azkorreta, Jon Guadix, Beñat Bobillo, Iñaki Uli eta Ruben.

“Egitura polita du Usurbil FT-k”

Aurrera begira, taldeari jarraipena ikusten diozue?

Iñigo Etxeberria. Auskalo, adin tarte honetan ez dakizu zer egingo duten bihar. Taldea ohorezko mailan egonkortzen badugu, ezin hobeto. Talde onak baitaude. Hau herri txiki bat da, lehiatzea zaila da. Baina futbol eskolara ere haur asko etortzen dira eta harrobi horretatik aterako dira jokalaririk. Harrobia badago. Kadete mailatik datozenekin, lehiatzeko talde polita geratu liteke.

Iñigo Etxaniz. Aurtengoa salbatu nahi da. Datorren urtean gazte asko igoko dira eta horiekin ere urtea salbatu eta gero ikusiko da. Orain kadeteen mailatik datozenek, Futbol Eskolatik igaro ostean beste konpromiso bat dute. Aurten igo diren kadeteek, rol hori hartuta dute.

Aurten itzuli zara taldera.

Baina lehen Usurbil FT-koekin lan egindakoa zara.

I. Etxeberria. Erregional taldea, futboleko inoiz edo aspaldi jokatu gabeko jokalariekin osatu genuen. Lehiatzen gaizki ibili ginen, baina entrenatzen gustura. Jokalari batek esaten zidan askoz gehiago gozatzen zuela jokatzeko baino entrenatzen. Orduan pasatzen zutela ondo, presiorik ez zegoenean. Futbola bultzatzeko ahalegina egin zen. Lortu genuen gutxienez, jendea futbolera erakartzea. Hortik aurrera urte urte hobetzen joan zen.

I. Etxaniz. Etorri zenean, nesken taldea bakarrik zegoen. Haiek jarraitu ez bazuten, agian futbol taldea desagertu egingo zen. Lan handia egin zuten orduan, erregionalen taldea atera zuten. Talde lehiakor bat atera zen, mailaz igo ginen, jaitsi ere bai, berriz igo. Baina gaur arte taldea mantendu da.



Taldea oso ondo antolatuta dagoela diote jubenil taldeko kideek.

Nola bilatu duzu Usurbil FT aurten itzuli zarenean?

I. Etxeberria. Preferente mailan, maila polita erregionalak ibiltzeko jende onarekin. Jubenilak ohorezko mailan, kadeteak ere igoera maila jokatzen eta ia partida guztiak irabazita eta infantilen taldea ere ondo. Neskak hasi dira iaztik berriz. Orain kontua mantentzea da, egitura polita du Usurbil FT-k. Ondo antolatuta dago.

ESKUBALOI PARTIDAK

Urtarrilak 12, larunbata

Infantil neskak, 11.00

Udarregi B Usurbil - Zarautz

Infantil mutilak, 12.00

Udarregi Usurbil - La Salle

Kadete neskak, 16.00

Usurbil K.E. - Urrietako K.E.

Jubenil neskak, 17.30

Usurbil K.E. - Urola K.E.

Senior neskak, 19.00

Usurbil K.E. - Egia Bera Bera

Urtarrilak 13, igandea

Infantil neskak, 10.00

Udarregi C Usurbil - Egia

Jubenil mutilak, 11.30

Usurbil K.E. - La Salle

FUTBOL PARTIDAK

Urtarrilak 12, larunbata

9:30 Alebin Mutilak Futbol 8

Udarregi 6 A

9:30 Alebin Mutilak Futbol 8

Udarregi 6 B

11:00 Infantil neskak F-8

15:30 Jubenilak

Urtarrilak 13, igandea

11:00 Neskak

“Hotzak akabatzen” zeharkaldiaren bigarren edizioa antolatu du Irisasi BTT taldeak

Iaz ospatu zen estreinako edizioak izan zuen harri ikusita, Irisasi BTT taldekoek "Hotzak akabatzen" travesia antolatu dute berriz, urtarrilaren 27rako. Goizeko 9:30etarako jarri dute proba hasteko hitzordua frontoian.

Izen ematea ireki dute jada. Inskripzioa on line egin liteke, hilaren 23ra arte. Federatuek 12 euro ordaindu behar dituzte, 15 euro gainerakoek. Diru sarrera bankuan edo transferentzia bidez egin daiteke. Rural Kutxan, Jorge Beorlegiren izenean, kontu korronte zenbaki honetan: 3008 0259 18 2474609522. Kontzeptuan,

partaidearen izen abizenak jarri. Horrekin batera, andatzamendizale.info web orrian eskura daitekeen formularioa bete behar da. Ordainagiria eta lizentzia aurkeztu beharko dira gero, proba egunean bertan.

Urtarrilaren 27an halere, izena emateko aukera egongo da, 8:30-9:15 artean, pilotalekuan bertan. Federatuek 15 euro ordaindu beharko dituzte, gainerakoek 20 euro.

FRONTOITIK ABIATUKO DIRA

Trabesian parte hartuko dutenek, urtarileko azken igandean, goizeko 9:30ean frontoian prest egin beharko dute. Pilo-



Urtarrilaren 27an abiatuko dira, 9:30ean frontoitik.

talekua izango da hain zuzen, probaren irteera eta helmuga gunea. 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute. Bizikletarekin batera, kaskoa eramatea ezinbestekoa izango

da. Proba ez da lehiakorra izango.

Amaieran, barrikote eta guzti, hamaiketako bikaina dastatu ahal izango da. Eta opariak zozketatuko dituzte.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde eta egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbarra handia. Lehen 240.000 eurotan, orain 216.000 eurotan!!! 662 056 899

75 metroko etxebizitza salgai Kalezarren. Pisu oso eguzkitsua, guztiz kanpoaldera ematen du, 2 logela, komuna, sukalde amerikarra, egongela eta balkoia plazara. Amueblatua eta berri-tua. Garajea aukeran. Tel. 686462705

Pisua salgai Txaramunton. Berria, bi logela, egongela, terraza ikusgarria. Trastero handia. 276.000 euro. 615 720 245.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukalde eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUAko erredakzio batzordeak ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzen jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Etxe bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Usurbilgo kaxkoan etxe bat alokatzen da, 3 gela, sukalde, komuna, egongela, trasteroa eta igogailuarekin. 943 37 14 95 -

695 76 78 21 - 657 71 13 35

75 metroko etxebizitza alokairuan Kalezarren. Pisu oso eguzkitsua, guztiz kanpoaldera ematen du, 2 logela, komuna, sukalde amerikarra, egongela eta balkoia plazara. Amueblatua eta berri-tua. Tel. 686462705

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berri batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratztea egiteko aukera. 665 720 913.

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berri-tua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukalde, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila

nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

MOTORRA**salmenta,
garajeak**

Ford Focus bat salgai, 2007. 140.000 km. 627 342 464.

Peugeot Satelis markako motoa salgai. 4.000 km. Urte eta erdi du. 627 342 464.

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

1999. urteko Ford Mondeo familiarra salgai, 1.500 eurotan. Egoera onean. 652 706 518

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Seat Ibiza salgai. 1004 TDI. 2004. urtekoa. Oso egoera onean. 2.000 euro. 667 715 075

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura-

duna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperiantziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrek emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrek emateko. Telefona: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edo ta klase partikularrek emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

Neska arduratsua garbiketa lanean orduka lan egiteko prest. 678 998 840.

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egiteko nuke. 636929990.

**Zorionak Garazi!**

Gure etxeko printzesak urtarrilaren 2an hiru urte bete ditu.

Heriotzak**Prudencia Tendero Galán**

90 urterekin hil zen urtarrilaren 6an Usurbil

**Heriotzak****Heraclio Ortega Mediavilla**

72 urterekin hil zen abenduaren 29an Santuenea



**SATXOTA SAGARDOTEGIAK
BERE ATEAK IREBIZTEN
DITU**

URTARRILA ETA OTSAILEAN,
% 10EKO DESKONTUA OSTEGUNETAN!!!

Santia erreka 3, 20810 - Aia
943 83 57 38 - Satxota@gmail.com



Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umek edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umek zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomaturia. Badut esperientzia. 652712099.

BESTELAKOAK

Txamorra eta jertse bat galdu dira Atxegalden. Udarregiraigoeta jertseko eskailera ondoan. Aurkitu badituzu deitu 660 779 160

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. (Etxera eramaten da). 667 232 300

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko palatxiki bat galdu genuen herriko frontoian. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko genioke. Tel. 639 469 577.

Larru itxura duen txaketa beltz bat aurkitu dugu Aginagako

frontoian. Norbaitek galdu badu, udaltzainetatik pasa bila.

Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Usurbilen, Heat markakoak (berri berriak) eta metaluzko fundarekin (beltz kolorekoak). Norbaitek aurkitu baditu udaltzaingoa utzi edo telefono mezua bidaltzea eskertuko nuke (675 703 276).

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Hainbat produktu erabili gabeak salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurrikoak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Etxean egindako ardi gazta sal-tzen da. 687 348 223

Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurreak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Taxia (Angel)	607 928 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udaltzaingoa	943 361 112	Eusko Tren	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Anbulategia	943 362 013
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Oa botika	943 376 076
Bake Epaitegia	943 372 336	Iturralde botika	943 363 395
Udarregi Ikastola	943 361 216	DYA	943 464 622
Haur Eskola	943 374 061	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Emergentziak	112
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
Hastapen tailerrak	943 360 465	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
KZgunea	943 023 684	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Oiarde Kirolegia	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Popular Español	943 370 411
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	BBVA	943 377 155
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Telefonica	1004
Abere-Landare Babeslea	943 376 650	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak urtarrilaren 10etik 20ra

Osteguna 10 DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

Ostirala 11 RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

Larunbata 12 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 13 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 14 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Astearte 15 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Asteazkena 16 URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

Osteguna 17 ORUE Jaizkibel 2. Lasarte

Ostirala 18 DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

Larunbata 19 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

Igandea 20 ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8
(Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Agenda urtarrila

10 osteguna

■ "Nik ere euskaraz lanean", aurkezpena ostalari eta merkatariei 16:00etan Potxoenean.

11 larunbata

■ "Pura Vida" dokumentala, 19:30etan Sutegin. Sarrera doan.

15 asteartea

■ "Erradiazio elektromagnetikoa eta osasuna", 19:00etan Potxoenean.
 ■ Korrika Batzordearen bilera, 20:00etan Etumeta AEK euskaltegian.

Korrika Batzordearen bilera, urtarrilaren 15ean

Martxoan ospatuko den Korrika 18 prestatzeko Korrika Batzordea osatu da herrian. Urtarrilaren 15ean bilduko da berriz, iluntzeko 20:00etan Etumeta AEK euskaltegian.

Euskararen aldeko lasterketa girotuko duen Korrika Kulturala Usurbilen abiatuko da, urtarrilaren 26an ospatuko den egun osoko Euskal Herri mailako jaialdi batekin. Sagardotegi erraldoi bat kokatuko dute Kaxkoan, herri bazkaria izango da, Esne Beltzaren kontzertua... Ekimen honen bidez, Korrika 18 lasterketak egingo duen moduan, euskara ikasleak



Bilera euskaltegian izango da, 20:00etan.

omendu nahi dira. Zehaztasun gehiago, datorren astekarian, eta korrika.org atarian.

Datozenak

Ogia egiteko ikastaroa

Ogia egiteko ikastaroa antolatu du Usurbiltzenek, urtarrilaren 26rako. "Ikastarotik ogi eder batekin itzuliko zara etxera!", adierazi dute antolatzaileek. Ikastaroko saioa, goizez izango da, 9:30-14:00 artean, Agerialdeko jangelan. Prezioa, 30 euro. Izena emateko deitu, 608 566 683 (Benat) telefono zenbakira.



Agerialdeko jangelan eskainiko da.

"Eiraann, argazkietan" diaporama

Iñaki Agirresarobe herritarrak eginiko argazki bilduma berri baten proiektzioa ikusteko aukera izango da, urtarrilaren 17an, 18:00etan Sutegiko auditorioan. Hamabost egunez Irlandan ateratako 600 irudirekin, bi zatitan banatutako 70 minutuko saioa prestatu du. "Eirann, argazkietan" izeneko emanaldian, "kostaldeko herrixkak, Belfast eta Derryko hormirudiak, ostatuetako eguneroko kontzertuak, gaelikoaren egoera, jendearen izaera..." ezagutu ahal izango dira.

Margo erakusketa Sutegin

Gregorio Arbeloaren seme Eduardok eginiko margo lanen erakusketa ikusgai izango da urtarrilaren 14tik 27ra, Sutegin. Pintura arloko sari asko irabazitakoa da Eduardo. "Impresionismoa, surrealismoa, modernismoa... Eskultura lanak ere ikusgai jarriko ditu", aurreratzen du urtarrileko kultur agendak.

Erakusketa bi astez izango da zabalik; arratsaldetan, 17:00-19:00 artean.

Coaching tailerrean izen emateko aukera

Nork bere sormena landu, pentsatu eta egiteko modu berriak ikasi eta dibertitzeko aukera eskaini nahi dute, Usurbilen antolatu duten Coaching Tailerraren bidez. Saioa urtarrilaren 19an burutuko da, 10:00-13:00 artean Potxoenean. Izena ordea aldeztu aurretik eman beharko da, 626 78 16 95 telefono zenbakira deituta edo a.talonvi@gmail.com helbidera idatzita. Ana Rodriguez adituak eskainiko du tailerra.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea **943 363 348 - 609 888 021**

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
 Tlf 943 37 08 78 USURBIL

EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA

U12 BILBORA

HERRI MOBILIZAZIO OROKORRA

17:30 ETAN CASILLATIK

IZENA EMATEKO:

aitzaga elkartean
gaztetxean
tabernetan

IRTEERA
15:30tan



Herrira

WWW.URTARRILAK12.COM

TXOTX

!!!



LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdian IREKITA
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



SAIZAR
Betiko Sagardoa

Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 37 39 95
www.sidrassaizar.com



Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

AIALDE BERRI

%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031** Santuenea



SAGARDOTEGIA
aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
TXOTXETIK!



Tfn-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com